

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

173n. Zenbakia Jorrailla
1993



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



(1944-1993)

ABESLARI EUSKALDUNA
BESKOITZE (BRISKUS) EN JAIOA
48 URTEKOA ZALA, IL ZAN

GABONAK ETA LANAK

Gabonetako jaiak igaro dira. Zerbaiteko liluragarririk badagola diñoe jaiotan. Urtero itxaropenez begiraten jake eta baleiteke bere barruan eta bitartean (abenduko 24'tik urtarillako 6'arte) ezin dauskula ezer txarrrik gertatu.

Jaiok joan dira diñogunez, baiña bitartean, Bosnia, Sarajevo eta inguruetan bonbaketak, tiroketak eta illketen oiua eta zaratea ez da ixildu. Somalian jazo diranak bere ez dira aitzutekoak.

Joan dan urtea, agur egin barria dogun 1992'garrena zalapartatsua izan ba'da be, orain jatorkuna, obeto esanda bere barruan sartuak gagozan 1993'garrena, ba-dirudi ez dala ohea izango.

Gure Errian ageri dan etorkizuna illuna dala diñoe langintza buruz jakitun diranak. Ezagutze onen barria kezagarria jaku, ainbeste langilleren lanpostu arriskuan dago-ta.

Senitarteko askoren ogia alderatu edo alboalboka dabillenean, ez dago txantxetarako astirik. Onetaz ez da errez aolku zuzenik emotea, egoera onetan ba-dakigun arren alegin guztiak norberak bere aldetik jarri bearke dauazala. Auxe irakurtean bakotxak esan daikio bere buruari ia orain arte alegiñik neikoa egin ete dauan. Buruausterik gitxi izan ete dauenentz. Antza, mundua burruka utsa dala-ta indarrik gogorrenakaz bultzatu bearra dagola edo izan bear litzakela gure ikurra.


Baleiteke oraingo edo azken onetako Gabonakarte gure bizimodua, bizitzaren arazoak, aitzuta edo erdi-aitzurik bizi doguzala. Benetan zelako edo noraiñokoak diran, bizitzako arlo guztietan, Gabonak igaro eta bat-batean ikusteko aukerea izan ete dogun, orain konturatu gara.

Baiña gaia ez da edozelan artzekoa, ainbeste lantoki itxi eta ilzorian dagozenean eta burua jazotzeko itxaropenik ikusten ez danean. Dana dala, Gabonak izan dirala-ta, benetako bizi modu zuzena, beargiña, estua familiaren barruan, danak batera bultzatuz, gure Erriak, beti aal izan dau, bizitzaren arlo guztietan aurrera egin.

Orain baiña, Europaren leia aurrean dogula, mugarik egongo ez dan ezkerok. (jadanik orain bertan ez dago), erraldoiaren indarrak artu bearra izango da guretzat eragozpenik aundiena, burruka onetan bizirik urtetea izango dala-ko arduratsuen, beiñena.

2.000'garren urtearen ateetan gagozenean, aurrera egin eta bertatik sartu aal izatea (Europaren eta 2.000 gn. urtean), baleiteke ez dala errez izango, egoereak ain aldaketa gogorra ba'dakar. Ba dirudi lenengoak auxe egitean, onenak, bizkorrenak izan bearke dirala; onenak mailla guztietan. Ete gagoz prest onetarako?

LARRONDO



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**
Kultura Saila

ATSEGINAREN BILLA

OIKERA BIZIA

Gizonok beti izan gara atsegin-zaleak, gure izake-reak berak ori eskatzen dauelako. Atsegin-egarri ori ez da ba gauza okerra, izakereak berak eskatua dan neurrian.

Gure aldi onetan bizitasun berezi bat lortu dau atsegin-egarri onek eta ba-dira ori orrelan izateko zio batzuk, esaterako askatasuna ugaritu izatea, griña ori sakonkiro aztertu ondoren diru-zaleak euren ikerketak egin dabezelako. Oneik zabalkunde ikaragarria egiten dabe atsegin guztiak eskintzen batez be gazteai, eta orren orde, diru-moltso ikaragarriak eskuratzen.

Atsegiña artzeko eskubide au iñori ez jako ukatu bear, baiña bai argi agertu ortik datozen ondoren onak eta txarrak. Gizonak aukeratu dagiala askatasunaren indarrak eta ez itsukerian.

Gaur, gaiñera, askatasunagaz batera bardintasuna gogoratzen da eta ona zelan salatu-bearrean gagozen, atsegiña alkar-banatzean, ez dagoala inguru-giroan bardintasunik: Batzuk atsegin-moltso guztiak eskuratzen dabez, beste batzuk ostera ezin dira eldu olako maillara. Bardintasunaren muga ziurrak non ete dagoz?

GREZIA'KO JAKITUNAK

Gaur ain bizi agertzen dan arazo au ez da gaurkoa, gizonaren parekoa eta bera dan bestean antziñakoa baiño.

Gai oneri buruz azterketarik sakonena egin eta ondoren garbienak atera ebezanak Grezia'ko jakin-zale edo filosofoak izan ziran.

Batzuk Diogenes'egaz, atsegiña billatzea eben elburua, baiña aukeratu barik, edozein atsegin, errezen datorrena.

Aristipo'ren jarraitzailleak ostera, atsegiñen artean aukeraketa egin bear dala diño, ez edozein atsegin, atsegiñik onenak baiño. Ago fiñekoak!

Beste batzuk, eta onetara sartu ziran Erroma'tar asko be, gizonak griñak kendu egin bear dauzala eta bardintasunagaz artu atsegiña naiz atsekabea diño. Estoikoak deritxe onei.

Giro onetan egoala agertu jakon jakitunari Jesu-kristo'ren mezua. Ez ekarren onek argitasun berezirik gai onetarako, baiña estoikoakaz batu zan ondoen eta oirek bultzakada aundia emon eutson pentsabide oneri. Gero beste ikutu batzuk be etorri ziran, batez be San Agustin'en burruka guztien ondoren.

GAURKO GIROA

Erri-agintaritzza edo demokraziaren aldi atsegin-zaletasuna edo gozatzerako gogo berez sortzen da eta asieran batez be bizitasun aundiaz. Aldi orretan gagoz, baiña antziñako denporetan baiño gaur bi-ziagoa da atsegin-zaletasunagaz batera datorren gizarte-ardurea. Ortik dator gure atsegin-maillara eldu ezin diranai laguntzeko gogo.

Beste alde batetik, gure aldi onek bere-bereak dituan arriskuak daukaz atsegiñaren bide oneitan: al-koolkeria, drogea, sida eta abar. Baita ibillaldietarako eta lurralde atsegiñagoetara joateko erreztasun aundiagoak, diruaren truke, jakiña, baiña antxiñako aldietan eziñak ziran gozamenak.

Atsegin-zaletasun onek ba-dauz bere ondorenak, esaterako norberekeria, naimena biguntzea, lan gaxak egiteko ikarea... eta olako giroa danean, gizarteak sendotasuna bear izaten dau.

BALIOEN MAILLAK

Atsegiñaren jakin-zaleak egin ebezan lanak euren ondorena izan eben, baiña gero beste aldi baten balioen filosofia sortu zan eta itaun au egiten eben oneik: atsegiña ete da bizitzan lenengo balioa? Zuzentasuna baiño balio aundiagokoa ete da atsegiña?

Pentsabide onek be zentzun aundia agertzen dau: Gizarteak naiago dau gizon atsegin zalea baiño gizon asmatzaillea, edo lan-sortzaillea, edo lagun-tzaillea.

Aldi bakoitxak aukeratzen dau zelako gizona nau dauan eta alakoak izaten dira gizarteak ateraten dauzan ondorenak.

IRUDIPENAK

Aita Villasante'ri

Euskararen Berripapera'k ekarrita "Ahaztu beharreko irudipe-nak" izeneko idazlantxo edo dana-dalako irakurrita arrituta geratu nintzan, batez be an esaten ziranak noren burutik urten eta aldizkari-txo aretan nok sartu zituan ikusirik. Buesa edo olakoren baten aotik ui-tendakoak izan ba'lira, ez eusten arrararik eragingo, baiña euske-rearen alde ainbat lan egindako aita Villasant k bere liburu baten idatzi ta Eusko Jaurilaritza'ko berbeta kontuko idazkari nagusiak al-dizkaritxoan sartu zituala ikusirik, iñuzentetuta lez geiatu nintzan.

Idazlantxo arek erantzunik ez ebala paltako uste neban. Ta bai izan eban erantzuna, baiña ez nik uste neban beste; nik dakidanez bat bakarrik izan zan arrazoi andibako esanai erantzun eutsana ta ederto ei-antzun be: Andoni Kortajarena.

Ni zaai-tu egin naz; beste urtebetetzerik izaten ba'dot larogeiga-rrena izango da. Orregaitik, makaldu egin naz ielazten (jaten ez!) eta ez dot nai izaten izparringietarako idatzi. Baiña aitatu dodan idazlanari erantzun nai dautsat naita berandu izan eta beragaz aztu-ta egon aldizkari aren irakurleak.

Egin daigun kontu an aldizkaritxoan esaten diran lez izan da-beela bai len eta bai orain be euskereagazko eretxia euskaldun askok. Askatasunaren edo abertzaletasunaren indarrez berpiztuko dala euskerea; euskerea gure ezaugarri nagusia dala, euskrea gure arimaren odola dala; euskei-ea antxiña-antxiñakoa dala; euskerea balio andiko berbeta dala.

Ta zer? Geure berbetai-i dautsagun maitasunak aoa geiegi za-baldu eragin ba'dausku be ortik ez da etorri beretzat kalterik, ez dauku galcrazo bere alde al dogun guztia egitea bizi guztian.

Edozelan be, bide okerrean sai-tuta asko urrundu garala geure nai ta eretxietan ez neuke esango. Aztertu ta ikusiko dogu.

Bost ataletan sailkatu ditu "Euskararen Berripapera"ra eroan di-tuanak. Ara emen:

1.— "Herriatik desagertuta eta zeharo itzalia den hizkuntza aska-tasunaren edo abertzaletasunaren indarrez berpiztuko dala uste iza-tea. Iñoiz. Irlanda edo Amei-iketako kasuetan adibidez, konti-ara ere gertatu izan da".

Bai, eritik osorik desagertua dan berbetarik ez da berpiztuten. Oiratio, bat, isrraeltarrena, erriak bei-barik egiten ez ebana, biztu dx gure egunetan. Baiña ori inirari lez artu bear da, ta inirari gitxi egi-ten da. Edozelan be, mirari ori gizon baten abertzaletasunak egin eban. Bere izena juan jatan burutik eta ezin neike ipiñi emen.

Baiña euskerea ez dago ilda; gaixorik bai, baiña azkenetan be ez dago. Ta orregaitik, indartu be egin leiteke. Ta euskaldun guz-tiok benetan maite ba'gendu, indai-tuko litzake, gaizkatuko litzake.

Ta euskerea geurea dalako beste errezoiz guztien gaiñetik maita-tuko ba'gendu, orreri zelan deitu bearko geunskio? Orreri abertzale-tasuna deitzea ez jaokon berbea erabiltea al da?

Eta iñoiz Irlanda edo Amerikctako kasuan adibidez aurka ger-tau dala? Ameriketako konturik ez dakit, baiña h-landa'n kontrara edo aurka ez da jazo. Aurka gertatea, len ondo joan eta askatasun edo independentzia lortutakoan txarto joatea, izengo litzake. Ta Ir-landa'koen berbeta ia illean dago orain , baiña bere gaixoaren erio-tzarako abiadea len artutakoa da, Inghlaterra'ren menpean egoanean.

Bai, Irlanda'k ez dau asko erakutsi euren berbeteganako maita-sunik.

┌— °Hizkuntza gure identitatearen ezaugarri nagusia, gure ari-naren odola, etab., dela uste izatka.

Hizkuntzak zeinu sistemak dira, gizonak elkarri beren burutape-nak adierazteko erabiltzen dituztenak. Beste balioak erantsiak dira".

Euskerea berbeta gure nortasunaren ezaugarri nagusia, gure arimearen odola dala uste izatea ez dot uste eretxi utsa edo senti-mendu bakoa danik.

Gure erriak bein be ez ba'leu euskeraz berba egin, ez giñan eus-kaldunak izango, ez euskun iñok "euskaldunak" deituko. Montañe-sak edo mañikoak edo beste zerbait izango giñan baiña euskaldu-nak ez.

Bai, gure ezaugarri nagusia euskci-ea da, ezpai barik. Euskerea ez ba'da, zer da ba gure ezaugarri nagusia?

Eta arimeai-en odola dala esatea be ez da esakera zoroa; geienez be, olerki usaiñeko itzagaz jazten dogula esakera, orixe.

3.— "Euskara hizkuntza oso zaharra dela, here inguruan dituen guztiak baiño lehenagokoa, euskaldunon harrokeriarako askotan erabili izan den leloa da. Esan daiteke, ordea, gaur toki honetan bere aldameneko beste hizkuntzak baino zaharragoa dela".

Euskerea antxiña-antxiñako berbeta dala uste dogu berbeta kontuan asko dakienak alan dala esan-da. Arrokeriz ori esaten do-gula? Izan leiteke. Baiña ori maite dogulako da. Geurea dan edozer gauza maite-maite izaten dogu, orretxegaitik, geurea dalako. Ta maite dogun edozeiñek edo edozek ezer goragarririk ba'dauko, esa-teko edo erakusteko egoten gai-a prest goragari ori.

Berbeta baten alde-dirik onenak bei-e edertasun edo balio andia ta antxiñatea dira nire ustez. Euskereak balio andia dabenik ezin esan izango dogu ta besterik eziñean, antxiñatasunari eldu bear izat-en dautsagu, zerbait esateko, alan dalako. Berari dautsagun maita-sunak ataraten dauskuzan berbak dira.

4.— "Hizkuntza batzuk, berez, bikain eta goi mailakoak eta beste batzuk ezgauza eta desegokiak dira. Zenbaiten ustez (Larra-mendi eta apologistak), lehen sailean legoke euskara. Beste batzuen aburuz (Unamuno), bigarreanean. Ez bat ez beste".

Berbetak batzuk goi maillakoak eta beste batzuk ez gauza ta de-segokiak dirala esan eban aita Villasante'k. Ta erdikorik ez dago? Dana dala, ez naz sartzen Larramendi ta Unamuno'ren eztabaide-tan. Naiago neuke euskerea danak mailla onean sartuko ba'lebe.

5.— "Batzuetan aipatzen dira hizkuntzen eskubideak ere... Baina hizkuntza ez da pertsona, ti-esna baizik. Lagun bati entzuna datorkit gogora: "Eta euskara galduko balitz, zer? Ez ginateteke orregaitik mutu bihurtuko. Izango genuke beste tresnaren bat behar diren gau-zak adierazteko".

Batzutan aitatzen dirala berbetan eskubideak be, baiña berbeta ez dala pertsona edo notiña, tresna baiño, ta orregaitik, berbeten es-kubidea esateak ez daukala sentidorik-edo, esan nai dau.

Bai, berbetak bear bada ez dabe eskubiderik eukio izaki biziak ez diralako, baiña euskaldunok ba'dogu eskubidea euskeraz berba egiteko; ta lengeoa esatea bigarren au esatea beste da, biak gauzak bera esan nai dabe erriarenezat. Esaldi onen gaiñean eztabaidatzea airean dabilzan eulien egazkadeaz eztabaidatzea beste izango litzake.

Ondorengo gogorra da. "Eta euskera ilgo ba'litz, zer?"

Nik ez dakit itxura bako itaun au zer dala-ta egin eban aita Vi-llasante'k. Ni beintzaC ez noa oni erantzutera.

Idazlantxo orretan dakarzan berc esanak baiño atsegiñago ira-kurri izan ditut aita beraren erlejoizko liburu lodi ederrak, Jainko ta abar.

BOLADA EDER BI

Igaz, neure euskal-zaletasua piztu ta eragintzeko aukera berarizkoak izan dodaz. Juan dan urtean zear euskal-idazti bi, euren egilleak idatzitako eskeinTra maitegarri bategaz apainduta, jaso nebazan. Bata urtearen asieran artu neban, ain zuzen urtarrillean, eta bestea barriz urte berean azken-aldian, azillean aleQia.

Beraz, adiskide bi oneik astia emon eta aldi berean euskerea aberasteko era eziñ-obeia emon eusten.

EUSKO-UMEAK ATZERRIAN da lenengo artu neban idazkariaren izenburua, neure adiskide ta apaiza dan Xabier Goitia'k idatzitakoa.

Gure 1936'garren urteko guda aldian, amaika urte eba-zala, beste umetxuakin Europa zear juan bear izan eban eta ango errietan sakabanatuta, burruka arnaitu arte, arrisku Quztietatik babestuta bizi ziran.

Santurtzi'tik "**Habana**" itsasontzian urten eta amaika illebeta igaro ta ;ero Endaia'tik itzuli arte aertatu ziran Qauza ta jazoerak, Goitia jaunak kirian-kirian eta atsegin-tzu azaltzen dauskuz trebetasUma aundiaz:

Guraso ta beste enparauēi azken aQur ituna...; etxemiñez jota ta ango eutsieziñezko negar-malko ta zotinak...

Oi dan lez, batez be ume-artean, gauzak aiztu ta (Yogoa baretzen dan-ezkero, nasaitasun aldia be eldu jaken...

Gure mutikoa Ekeren Belgika'ko erri txikitxuan, flandestar sendi babestzaille baten, bizi izan zan: sendi barreneko bizi-era...; erriarrakin artuemonak...; ikastola... eusko abesti ta dantzak...; ango lur launetan txirringaz egindako ibillaldi Ta ariñeketak...

Azkenez, egunik naiena eldu ta aberrira biurtzeko abiamenak...; etxerakoan poztasuna...; aita-ama ta senide Quztiak besarkatu...; ango biotz-ikara ta alaitasuna...! Barriro etxean.

MENDEKUA.– Auxe dogu bigarren artu neban idazkariaren izenburua. Bere egillea gure artean ain eza(yun dan Zubiri'tar Iñaki dozue. Arlo onetan, bere ospe ta trebetasuna aintziñatik adierazi dauskuz ZER aldizkari onetan eta, batez be, lendik argitaratutako **Izadiko Pitxiak** eta **Galdu** idazkiak bidez, ain atsegin baizen jakingarri gaiak darabillezanak.

Oraingo idaz-lana elebarri ernegarri ta polit bat dogu. Gai ta koropilloaren oiñarria, izenburuak diñoskun lez, lankide arteko trikimailluetatik sortutako mendeku baC da.

"Bikain" errediza-lantegiko idaztegian, Klemen uga-zabaren seme bakarra ta seiren bat ogipeko artean Kepa Mirena mutil Qaztetxo bat, au be alargun baten seme bakarra, egoan...~

Klemen jokalaria amorratua ta bimrri, gaiztakeriari emona, zorrez beterik lur jota gertatu zan... Onek, ondamentitik urteteko, lantegiko diru-kutxatik ostu ta lapurketa Kepa Mirena Qizajori leporatu eutson...

Ondoren Kepa Mirena'ren baiturea, epaiketea ta zortzi urtebeteko espetxaldia...

a) Atzekaldean

Azkenean, espetxetik urten eta beste errediza-lantegiren –"Goiena"– jabeturik, Klemen'aren "Bikain"eri, leia-keta galgarri bat egiñez, porrotera bultzatu eban...; Klemen'ek agiri bat izenpetu bear izan eban, lapurketaren egille bakarra bera izan zala autortuz... Onezaz gaiñera, Kepa Mirena, Gentzane Klemen'en emazTegai izandako neskatillakin, ezkondu zan... Iru zigor edo erru-zari oneik osotu eben Kepa Mirena'k asmatu ta bete izan eban mendekua.

Aitatutako idaz-lan bi oneik, naiz eta ezbardiñak izan bai mota, bai Qaiaz, bata edesti edo kondaira ta bestea elebarria dan-ezkero guretzat, batez be bizkaitarrentzat, badaukie alkarren-arteko garrantzizko bereiztasunik: euskera jator, garbia ta biok bizkaieraz idatzita dagozala.

Bear ez dan garbikerietan sartu barik, bear danean ez ezagun diran itzak euskerearen sustraietatik sortuarazi ta izparri bidezko, ulerkoi, ta politik darabillez asmoak adierazteko.

Txalogarria da benetan onelako bidetik jarraitzea, erderara etengabe jo barik, euskerea zikindu, kutsatu ta, kaltegarriena dana, izkuntzaren muiña baztertu euskerea gaztelaniaren izkelki edo dialekto bat biurtzeraiño.

Idazti biren egilleak iztegiari buruz jatortasuna zaintzen alegindu ba'dira, itz-joskera be, arreta aundiko gaia izanik, ardura aundiaz erabilli dabe. Zein idazti baten zein bestean, esaldi jator eta bikaiñak irakun-i al izango dozubez. Nik neuk beintzat ereduzkotzat batzuk azpi-marratu dodaz, bear danean nora jo al izateko.

Beraz, ara emen gomendagarri diran idazti bi euskaltzale Quztientzat, baiña batez be bizkairaz egiten doguentzako aspaldi ontan, batua dala ta ezuala, ain baztertu dagon izkelkia.

Oraintsu illebeta batzuk dirala, 1936 urte aurreko euskal egoeran argitaratutako idaztiak, astia emote-arren, irakurri nebazan eta sortuiko gogorapenak ZER'en, neuk bialduta agertu ziran. Idazti oneitan erabiltzan iztegi, idazkera arauak eta itz-joskera gogoratu ta irazkinduz senditu genduan atsegiñak eraginda-edo, idaz-lanari Aize **Osasungarria** izen-burua jarri geutson: **Eusko-Umeak Atzerrian** eta **Mendekua** aize osasungarri onen bolada eder bi doguz.

Egilleai zorionaz batera, geure esker onak agertzen dautseguz.

IDIGORAS'TAR JOSEBA ANDER

ATANASIO JAUREGI GOIRI

Pasiotarra

II

EGINALAK EGIN

Gizon bakoitza da berc buruaren eta bizitzaren egillc. Ori da, egiaz, gurc elbururik goresgarriena. Baña ez da gauza erreza.

Gizon emakume geienak ilten ei gara Jaunak emondako Qaitasuna, eta izatasunetik datorkigun kemena eta indarra geicnbat ustiatu barik.

Aita Atanasio'k. ostera. bere baliotasuna goren_*o maillan jarri gura dau. Egiñalak cgingo ditu bere griña okerrak azpiratzeko, bere adimena egi bidcan ar 'itzeko, berc biotzaren bultzadak alik ondoen zuzentzeko. eta lagunekin begirunez bete eta molda ecreza izateko. Sarri askotan crabilli hcarko dau bere buruan eusko esakuna: "Zure etsairik audiena, zcure burua lenena".

Gizabide oneik gogoan arturik aita Atanasio Pasiotarren Nagusi, Gotzaiñaren ordezkarri eta Nazio-Ikastetxean inikaslc izendatua izango da.

Jaunaren maasti zabalcan danentzako dagoz arlo galantak. Eta ez da egoki cliz arazoetan zarra-parra jokatzeko. Eginbide onetan egitarau zuzen eta ondo ikasiak bear dira. Orretarakoz aita Atanasio'k mixiolari guztien artean batzarre zintzoa eta eraginkorra egin-<*o dau araubidcak ondo aztrtu. argitu eta cratutcko.

Batasunari indarra darraiko eta cusko mixiolariak pozik eta gotsu jokatuco dabe euren egin-bear guztictan.

Giza scmejator eta leialari beti r.abaltzen jakoz atek eta bideak eliz gidaritzan. Eta aita Atanasio Deustu'ko Pasiotarren batzarrean Probintziko Nagusi autatua izan da. Ez luzarorako, orraitio. (1920).

Jaunak ondo daki nor norako dan. Aita Atanasio'ren izcn ona eta entzutea Erroma'raiño eldu cta, eta Benedikto XV garrenak Amazonas esku aldean eliz Prefcto egin dau. (1921, otsaillak 17).

Eta atzera be gure Atanasio, eliz gizon etorkorra eta esanekoa, beste mixiolari talde bategaz Amazonas aldera doa. (1921, azaroak 25).

Aunditasuna arrokeriagaz bat egitea gauzarik oken-ena dozu. Origaitik esango da Qure artean: "Zu nausi ta ni nausi, nork guri aparia jari"? Aita Atanasio'ren berebiziko gaitasuna etzan cgundo aundikeria izan. Bere eginbide guztietan zuzen-zalea izanik, ondo baño obeto daki guzticn edcrra irabazten bere apaltasunaz eta otzantasunaz. Auxe da, izan bc, alkar ondo artzeko eta biotz guztiak bide onean jartzeko modurik egokiena.

ATANASIO, GOTZAIÑA

Amabost urte dira gmre eusko mixiolariak, Amazonas aldeko lurralde beroetan, izerdi patsetan, su ta gar dabiltzala. Lurralde basati onetan, naiz ta lan awidiak egin, beti izango da geiago egin eta ekin bcarra.

Ori argi ta garbi ikusirik Erroma'n aukerako erabagia artu dabe, eta Lima'ko gon-gotzaiñaren eskabidez, aita Atanasio Yurimaguas'ko gotzain autatua eta izendatua izan da. (1936, garagarrillak 16).

Gure Gotzain barria beti Jcgez eta bidcz ibilteko gizona dozu. Baña oraingoz bere biotza Jaun<ren cta gizoncn aurrean zabaldu eta aunditu eQingojako.

Gure Gotzaiñak burutu nai dabezan asmoak onexek dituzu:

— Gaztediaren aziera. Yurimaguas'en ez dago ikastetxe egokirik. Eta inguruetan ez dago arririk eta adrillurik. Zer egiñ? Euskadi'tik ekarri adrilluak egiteko makiñak, eta gure mixiolariak eurek egingo dabez labe edcrrak. Modu ontan asiko da erri onen aurrcrapena. Ikastetxe eder, aundi, zabal ontan izango dau emengo gaztediak bere etorkizuna.

— Osasun-etxea. Jema deunaren izenagaz eregi eta zabalduco da osasun-etxe barri, eder ikusgarria eta osasungarria.

— Eliza Nagusia, inguruko errietan ederrena, Jaunari bcnetan dagokion etxea, eta kristau fedearen eta bizitzaren ardatza izango dana.

— Lanari ekiten erakutsi. Egia ete da ori? Bai. Ango basoetan ez dago Iugintzarik, beirik, idirik, ezta atxurketa edo Iayaketarik. Basoak eta errckak emoten dauan joritasunaz bizi dira. Emcnguai esan bearco: "Jaunak txori guztiai jaten emoten dautse. baña ez janaria abian ipiñi". Janaria ta bizibidea ekarri, erakarri eragin eta ugaritu egin bear da. Auxe da emengo ikaskairik bearrezkocna.

OMENALIIAK

Elizak eta Peru'ko Jaurlaritzak aintzakotzat artuko dabez gure Atanasio'ren egite goragarriak, eta ara emen berari jarri dautsezan dedu-domiñak: Jaurlaritzaren aldetik sei dedu-domiña. Eta clizaren aldctik, Erroma'tik, datorkio dedu-domiña bat, benetan ondo mcrczia.

Bere bizitza goragarria, eguzkiaren urregorritzko sarrera lez, illunabar egin zan 80 urte zituala. (1957, dagonillak 30).

Goratua izan bedi Larrabetzu'ko seme jatorra eta Pasiotar mixiolari aipagarria.

URIGUENTAR ZENON

GABON-EGUN

Gabon-egun,
olentzaro!
Zeruetan argia!
Goitik dator poz abes-otsa:
Barri Ona irrntzi egin,
ardi bordan jaio da gaur,
Jesus Salbagillea.


Gabon-egun,
olentzaro!
Jaunaren bakea.
Gizon orori maitasuna,
gogo zintzoai poztasuna.
Gau illuncan sortu da
argiaren eguna.

Gabon-egun,
olentzaro!
Aintza ta aintza Jaunari,
Maria ta Jose deunari,
Jesus aurtxo bigun onari.
Mesias Jaunak egin dau
gurcan bere borda.

URIGUENTAR ZENON

Doña:
Noche de paz.

OROZKO - IBARRA



Orain, amaika amabi urteren hatzuk, Santagedaurre-egunean, edo obeto, aurre gauean Orozko-Ibarra Etxe-artean txarkeri ikaragarri bat sortu zan.

Ixil-ixillik, ezertxu be esanez, barruko lotsa ta miiñez, igaro bearko dogula jazokun txar, madarikatu ori?... Ezta au nire eretxial... Ni neuk ustc dot Euskal Erriaren ixen onagaitik zabalkunde berarizko bat emotea aldizkari "ZER" onetan guztiz egoki dala, danok jakin dagien, argi ta garbi, bein eta betiko, orrelango gizadiaren kontrako gaiztakeriak gorroto, amurru itzal aundiena artu bear dabela, lenengo, kristiñau onak garealako, ta gero, baita be, gizakume onezkoak. Ez, ezelan be, iñoiz beez, asko zirean txarkeri ikaragarri a egin ebenak gure dabena: ixil-ixillik, baretasun gorrotogarriz igaro daitela.

Eurok esango deuskue, bear bada, Gure erantzuna legegizonena izango litzake. Erru-txarkeri, gaiztaegile, nortasun (personal) oker eta oker egiazko edo izana.

Oker gaiztaegilleari parkatu egin bear yako. Baiña okerkeri egiazkoa bera zigortu bear da. Ori ezpaleuke egiten, gizadia ezin izan, bizi leiteke. Orrez ganera, parkamen ta adiskidetasunak bearkuntza daukie, psiko-lojizta lojikaz parkamen egonez.

Nik emen ikusten dot gauza oargarri bat: Aldundegiak Aurelio Letona'ri emon ba'deutso Baso-Zaindari zeregiña, ta beronengan usteona ebalako (bere aititaren anaia, D. Bartolom de Letona, Deustu-Bilbo'ko Alkatea gizaldi onen asikeran birri-tan izan zan). Zegaitik, diñot, ain luzaro epaia igaro izan zan, azkenez mordollotu, korapillatu itxiteko. Zergaitik ez eban arpegia agertu? ta esan au edo ori..., ta ez mutu baten antzera geratu...

Jaurlaritzako Ertzaiñak, Langille ta Bizkorrak, dandana argi ta garbi egin ta itxita, barri-ro diñot, Gure Bizkai'ko Aldundegiak, zergaitik aren lana ez eban onartuko beintzat?...

Emen guk orain Bizkai-Lurralde guztiko ta baita Euskalerrri Zabal aren izenean Letona'tar Aurelio'ri eriotz gogorra egin eutsenai aolku bat: Ezagutu egizue zeuen errua... eta olan, urte batzuk geroago etorriko yatsue Euzkadiko kristiñauen parkamen osoa. Ori egin izan ba'zenden lenengotik, orain aske ta ardura barik egongo ziñien.

LETONA'K

"TXALUPE BATEN AZKENA" (Urreratua)

Ni jaio nintzan erriko ibaiaren biurrune batean, oraindik ikusi al da bai itxas goretan, ur azal gaiñean, ol luze, illun eta oker bat, eta zer esanik ez, itxas beretan bat batean itxuraz txalupa sendo bat izandako zati aundia, baborreako ain zuzen, basa ta arri tartetik bere ondokiñak erakusten lotsa barik, oraindik bere garaiko ibilkerakin arrotuta lez.

Arrotasun ori erakusten emoten dau berak urtearo gogorrena eltzen danean, edurrak eta uoldeak bat egiñaz, ibaiaren indarra aunditzen dabenean; beroi bakarrik gertatzen da tente bertan zirkiñik egin barik, lekuko mutu bat lez, berorren alderdi guztietatik zear beste mota askotako deseginkizun guztiak, putz-otzean batzuk, pasaten direnean elmuQa bako itxasoruntz.

Aruntz onuntzean ibiltzen dan gendeak ez dautso begirakunarik botatzen, bear bada bertan gauza edo enbaso ori ikustera urte askotatik oituta gagozelako. Bakar-bakarrik umeren bat urreratzen jako noizean bein udako eguzki epeletan, bertan jolastu naian baiña orrelakoetan ere ez denbora askorako, bere inguru guztia zikin eta labantsuegidagolako.

Bere edertasun Qaraian, orain dala urte asko, agure ta gaztearen ikusgaia zan, astilleruan jaio zan eQunetik, bardingintasunbako bertako arotzak itxura galanta berari emoten asi zirenean. Ia-ia urte oso bat egun apaintzen. Bere bateoaren egunean Loraila'ko goiz eguzkitsu ta lora usaintsu ego aizea joten egoala, eriñotz adar bat lotuta eukala zubi gaiñean. abadeak bedinkatuaz, "Goizeko Izarra" an eroan eben bere lenengoko itxasoaldira, txango batera lez, turrin otsean.

Egun ortan eta biaramonean, erritar geienen aoiñean ez egoan beste gairik:

- Ori bai bapora!
- Arrezkero, zenbat kosta ete da?
- Bere antzerakorik ez dot uste sekula ikusiko dotenik.

Onelako eta antzerako esan baikorrek eta bekaizkerikoak baiño besterik ez ziran entzun erri guztian eta ez zan gutxiagorako. Esate baterako, bitxikeriak alderatuta, txalupa ori egiteko egurra, Afrika'ko errialde urrun batetik ekarrita izan zan. Orrela ba, bitxikeriak ere alderatu barik, txaluparen eraiki nabarmenak erritarren iritzi bultzatzaile biurtu ziran.

Uretara bota ta ospakizun amaitu ondoren, beste txaluparekin batera asi zan arrantzan, aurretik asita egoan antxobako kanpaiñan ain zuzen ere, patroï gazte ta zintzo bategaz nortasun sakonekoa ta artuemon zabalekoa bere gizonekin. Andik denbora gitxira, laster ezarri zan txapeldun bere tankerako txalupa maillan arrantzarariena lez.

eta ez erri maillan bakarrik, ipar itxasertzeko txalupa guztien artean baizik.

Urrengo urtean arrain gitxi be gitxi gerta eta txalupak ez eben arrapatzen gitxi baiño. Iñok ez eban asmaten sikete orren sustraizko arrazoi garbirik eta gauzak orrela, Goizeko Izarra'ren jabeak kezkatuak, geien bat ordainketeri aurrera egiteko premiñan, beste itxasoetara bialtzera erabagi eben. Eta onelakoetan sarri gertatzen dan lez, txapelduna alde egiñaz batera, beste bat ezarri zan nagusi errian, naiz eta Goizeko Izarra'ren maillara eldu ez.

Denbora luze batean, iñok ez ehan asterrenik ateratzen berari buruz baiña jabeari galdeturik, ondo ebillela erantzuten eben eta orrela illak eta urtearoak igaroaz, neguko illuntze otz batean an agertu zan kai aurrean eta inguruan bertan egoezen batzuk baiño besterik ez ziran konturatu.

Baiaramonean, goizero lez azoka aretoan alkartu ziren andrakin asita. laster zabaldu zan erri osoan Goizeko Izarra'ren erriratzea eta beroi izan zan berbetaku gairik garrantzitsuena bai egun ortan eta makiña bat denboran zear, ao betetik bestera pasa ala, geienak zerbait geitxua-go asmatuaz batera txaluparen barriz etorrieragaitik orrelako ordu berandu batean eta...

Zer jazo jakuen, eureri galdetuera amabi gizonekin joanaz, bostega-r, etorri zan bakarrik eta iñok ez eban gauza Qarbirik esaten. Itxura dan lez, urruneko itxasaundi batean zear ebizela, gau ta egun ekaitsu hatean an gerta egin zan gertatekoa. Aiñ jazoera mingarria izan zan, ontzi-gozonik ez egoala prest beorren gain berba egiteko zeatz meatz.

Dana dala, ori ez zan izan Goizeko Izarra'ren amaiera. Beste amar bat urte bota ebazan biarrean naiz eta arrantza arloan asierako maillara barrero igo ez.

Itxas arloko gauza geienak aldatzen jaiozala eta era bateko gaurkotu bearrak eukezala, jabeak aurrerapen guzti orreikin egitea beste txalupa barri bat erabagi eben. Bian bitartean, Goizeko Izarra'gaz jarraitu eben baiña eguna eldu zanean, bateri bedeinkapen guztiakin uretaratu ta ospakizun guztiak egin ondoren, bestea an eroan eben garai ortako urontziren betiko atzedan tokira, illerrira.

Urte asko igaro dira andik ona baiña Goizeko Izarra'ren ondokiñak, ibaiaren biurrune bardiñean, bertan jarraitzen dabe oraindik, ia-ia leleñgoko egunean lez, baten bateri zeozer erakusten emon naian lez, garai batean gertatutakoaren lekuko mutu bat lez.

AITOR GARCIA ILZARBE (BELARRI)

GERNIKA 'KO SUARI BERTSO BARRIAK

AURKEZPENA

-4

-8-

-12

Berrogei ta amabost urte
beteten dira aurten
gure Gernika erre ebenetik.
Kriminalak une baten
Neuk ikusia izan zan legez
Nola ez jat aitzuten.
Papel garbian jartzen ez dana
aitzuten dan lez sarriten
bertso barritan neuk jarri neban
egundo aitzu ez daiten.

Gure Gernike erre zanean
ondoan izan gintzaza
eta bertako guraso batek
auxe egin euskun esan:
Cure Gernike ez dago emen,
Gernike emen egon zan.
A ikusirik arriturikan
biotza apurtu jatan
ta pentsa neban munduan azken
abisuren bat ete zan.

Andra to ume zerura deika
eskonbroz atrapatuta
garbitokiko aiimak legez
besotik gora jasota. Bonbardeoa
gelditu barik,
oindo suzko bombak bota.
Istorian au ez da izango
inoz ondo azalduta.
An jazo zana idatziteko
izkuntzarik ez dago-ta.

Fazistak ziran otsoak eta
Euskalerrria bildotsa.
Eta Gernike maitagarria
Euskalerrriko biotza
eta otsoak biotzeraino
sar eutsan agin zorrotza.
Itzal itzala izan arren be
kriminalen odol otza
aginkadaka ez da lortuko
erri baten eriotza.

-1

-5

-9

-13

Bertsolaria beti dagon lez
egien aide bearrean.
egi zuzena ipir i nairik
guzur barik gurtien zanean,
eta batez be kaluni zarrak
bitarteko diranean.
olako ainbat jazo zan-eta
Gernika erre zanean.
egiau argi jarri gura dot
erriaren izenean.

Peri-egunez erri gurtia
bonbardeoa apurtu.
eta barruan izan ziranak
eskonbro azpian sartu,
baita igesi joan ziranak
tiroka ametraillatu.
Ain zan Kriminalkeri itzala!
munduak ezin sinistu.
Neuk be eneban sinistuko-ta,
neuk ikusi ez ba'nitu.

Eleizeak be ezitun euki
orduau aldi errezak
gaiztoarekin egin zitun-da
alkar zaintzeko promesak,
munduan zear botatzearren
kaluni zar aldrebesak.
Indartsu divot: Etzun errurik
ez. egiazko eleizak:
errudun ziran obispo batzuk
ertziralako artezak.

Istori baltza idatzi dausku
igaro dogun garaiak.
Egi zuzena zapaldurik eta,
indarrak ez errazoiak.
Euren aorik ezin zabaldu
Jaun jakitunaren doiak.
Lurrak gurtiak odol-gorritu,
negarrez bete ibaiak.
Kultura eta jakituria
ebagi zitun kanoiak.

-2

-6

-10

-14

Millaz ganera bederatzireun ta
ogeta amazpian,
apirillaren ogeta scian
eta here arrastian.
gure Gernike agertuten zan
suzko lainoen azpian,
kriminal batzuk ekarri-eta
inpernutikan ispian,
ainbestekorik ez zan ezautu
munduko istori gurtian.

Lenen lenengo apurtu eta
gero eustu ta birrindu
ganera esan geuk ez du egin,
ori Agirrek egin du.
Sagraduena geuri erreta
oindo kaluniz iraindu.
Baina egi au argitan dago.
Inok ezin dausku kendu
Gure Gernike etzan erreko
abioirik euki ez bagendu.

Mundu gurtia ar^{es} tu eben
ango oi u ta negarrak,
baita argitu zero gurtia.
An izan ziran su-garrak
Franko bera be ar^{es} tu zan-ta
bere guzurtu-bearrak
azkenez esan, izan zirala
Alemania'ko txarrak.
Bai alemanak izan zirean
baina danak Frankotarrak.

Bonbak botatzen egazkin zarrak
guk deitzen geuntsen tranbiak.
Iru orduan joan etorri
nai eben ibiltaldiak,
nmillakak kilo erabilteko
aiek etziran euliak.
Aidean jaurti kale ta etxe,
idiak eta zaldiak.
Orrekin ba dau zegaz lotsatu
ogeigarren gizaldiak.

Azkena

-3

-7

-11

Gerra asita or Otxandio
apurtu eben lenengo.
Ori etzala naikoa-eta
birrindu euskun Durango.
eta Gernike maitagarria
kizkaldu euskun urrengo
nai ta etorri Luzifer bera.
Hitler. Franko nai bilingo.
uste genduan ainbestekorik
inok etzula egingo.

Bonha astunez it eta kizkaldu
andra ta ume txiki-txiki
lotsagarririk andiena da
kruzada dala atxaki
obispoak be etziran danak
an jazoaren erruki.
Obispo batzuk sinistu ez arren,
Jaungoikoak ondo daki
naita Luzifer it bear izan,
aik erru ez eben euki.

Gerra orretan jarri genduan
mundu dana arriturik
iru nazioi eutsiagaitik
larogei milla gudarik
ta orregaitik larri gengoan
danok eskomulgaturik,
jakin daiela munduan diran
obispo nai agintarrik
guri bakean izten dauskunak
gugaz ez dauka gerrarik

Orra amalau bertso egiak,
egi utsakin beteak,
egi-lekurik bete ta ba'dau
ikusia esateak.
Istoriar zabaldueteko
egi argizko atreak.
Kaluni zarrak egin eztaizen
egien aurka kalteak.
Egin garbi merezi du-ta
gure Gernike maiteak.

PUJANA'TAR BASILIO'K

ESTITXU Abeslari Bikaiña

Bere izen osoa, Robles-Arangiz eta Bernaola'tar Estibaliz izan da, baiña ezagun eta adizkide zintzoa izan dogunentzat ESTITXU bakarrik eta besterik ez, izen maitekor ori naikoa zalako bera gogoratzeko.

Ipar-Euzkadi'n jaioa zan, BESKOITZE'n ain zuzen be (prantzitarrak "-BRISKUS" esaten dabena). Eta bere bizi-tokia "Leku-Eder" baserria izan da. Jaiotz au 1944'gko. Bagillaren 6'an jazo zan, "Normandia'ko itxasontzi lurreratzea" izan zan egunean bertan; egunik luzee-na lez ezagutzen da.

Bere etxekoek, alemandarren esparru barruan egozen eta onein aurkako isillezko gudan sartuta

egozelako, ba ekien egun orretan "Normandia'ko itxas-lurreratze" ori izango zala. Tinkaldi ta une urduritsu onetan jaio zan ESTITXU.

Auxe da, bere abeslari bizitzaz gain, jakin dagi-zuen, ementxe jartzen dana.

"Leku-Eder" toki guztiz baketsu ta zoragarria da, batez ere baserri ta geure baso ta mendiak maite doguzanentzat. Orregaitik bere sendi osoa edo geienak beñipein, zoriontsu izan dira toki eder orretan.

Ez da gatxa ulertzea olako toki atsegingarri baten bizi dana abeslari, soñulari ta, zegaitik ez, ameslari izan daitela.

Onegaitik geure ESTITXU, apurka-apurka ta igarri barik, abeslari bikain bat biurtu zala. Baña ez da ori bakarrik, bere aizta nagusiak be, guztiz



ESTITXU, 28 urtedun .rala.

ondo abestutzen dabelako, irakasle guztiz onak lez, euren ESTITXU maiteari irakatsi eutsezan lenengo-ko ikaskizunak, biotz-biotz berari emonaz.

Gero, bide eder orreri jarraituz eta Jainkoak emon eutson adimen eta irudimenagaz, geure ESTITXU, ekin eta ekin gorengo maillara eldu zan bere abesti zoragarriakaz, bat baiño geiago berak asmatutakoak.

Baña, ori dana, ez eban gorde beretzat edo bere etxekoentzat bakarrik. Bestaldera jokatu ebalako, au da: berak eroian poza edozeñeri emoteko gertu egoan beti, batez ere euzkotar guztiai ta ori beti biotz zabalez, danoren poztasuna gura ebalako.

Eta ori benetan lortu eban; orregaitik ESTITXU'ren izena aitutzen dogunean, danok aurpegi alai eta irriparez gogoratzen dogu. Olakoxea zan bera; danori poztasuna eragiten euskun eta orrexegaitik bere izen eta irudia geure biotzetan eroango dogu danok.

Alan da guztiz be bere bizitza ta artu eban bidea ez jakon beti erraza izan, bere denporako abeslari batzuk, ESTITXU baztertu gura izan ebelako. Bekaitza ete? Ala beste guztiak baiño geiago zalako? Bizkaia'ko Erri bat ezagutzen dogu, euren jaietarako ESTITXU eroan ebela bere abesti ederrak entzuteko asmoz, baña abestiok botatzeko danon aurrean agertu zanean "txistuka" artu eben. Ziñest eziña da ori, baña, zoritxarrez, egi biribilla. Alan da guztiz be ESTITXU'k bete eban eta ondo bete

be, bere egin bearra ta ontzat artu ebenak pozarren joan ziran euren etxeetara.

Dana dala, ESTITXU'k adoretu aurrera jarraitu eban olako uzkeriai jaramonik egin barik, ba ekialako zer gura eban eta nora begiratu bear eban.

Ori dana esanda, ziur gagoz zeru ederrean toki berezi baten egongo dala, bere eskuak gauza onakaz gañeztuta eroan dauzelako.

Onetzaz, gauza bategaz gogoratzen naz; Gogoñarkun batzuk egiten nengoala abadeak (Josu-laguna zala uste dot) auxe esan euskun: antzoki-biribilletan urtetan diran parre-erailleak "toki berezia eukiko dabe zeruan", euren eginbearrakaz biztanle guztiai poztasuna emoteko alegindu diralako. Ondo oldoztu ta gero, konturatu naz orrelan izango dala. Baña ori, neuk, neure aldetik, onelan osotutzen dot: Erri-abeslariak, batez be zeulako abeslari zintzo ta alaiak, zuen "toki berezia be lortuko dozuela zeruan". Eta onez gain, zeuk asmatu, konpondu ta abestu zenduan "AGUR MARIA", Zeruko Amari eskari ta otoitza batera egiñak zirala, beste zio bat dala abeslarien toki berezien artean gorengo mailla baten zeu aurkitzeko orain. Ori, zeu ezagutu zaitugunok, ziur daukagu geure buru ta biotzetan.

Orregaitik, Zeruko atera eldu ziñan orduko, geure Zeruko Amatxua "Begoña'ko Amatxu maitea" urtengo jatzun bidera ta bere magalean artuta Aita'ren aurrera eroango zinduzan eta Aren mosu ta besarkada ederrenena artuko zenduan; ondoren zeure guraso ta Koldo neba maiteak besarkatuta, zeure benetako ta amaibako zorionari asiera emoteko.

Zeure illeta-eleizkizunean, Begoña'ko Amaren Eleiz ederra andra-gizonez gañezka egoan eta orrek be erakusten dausku benetan zelakoa izan ziñan. Sarritan esan dot bai emakume naiz gizon baten aldeko eleizkizunetara notin asko joaten danean, ludi ontatik alde egin dauana guztiz ona izan dala. Eta geure ESTITXU maiteagaz orixe bera jazo da.

Idatzi dodana ba dakit oso gitxi dala ESTITXU'ren alde zeozer esateko ta geiago esan gure neuke, baña ez dakit zer geiago ta zelan esan bez, batez be Jainkoak ez daustalako nire eskuan daroadan "boligrafoan" gauza geiago iminten. Orregaitik amaitu bear dot, baña lenago nire biotzean daroadan arantzaxua agertu gura dautzut:

Begira egon nintzan ia noiz urtengo ziñan gaixotxetik zeure aizta Maitane'nera joan zeintezan eta, antxe, alkar-izketatxu bat zeugaz egiteko ta azkenez mosutxu pare bat emon nengizun. Baña, antza, Jainkoak beste gauza bat erabagi eban eta ori ontzat artzen dot.

Otsaillaren 24'an, 48 urtedun ziñala, zeure ibilaldia amaitu zenduan ludi ontan eta orain donokian zoriontsu aurkitzen zara. Ori ta be ba dakit geure aldetik ez dozula alde egin, zeure errautsak, naiz eta IPARRALDEAN zabalduak izan, geure artean zagozala betirako ta batzuetan andik onantza, bestietan emendik arantza, aizeagaz batera ibiliko zarala zeure abesti goxoak abestutzen eta danok pozaren-pozez jarraituko dogula entzuten, batez ere baso-mendietatik gabiltzanok eta ganera, orain, zeruko aingeruen zoragarritzko soiñuaz lagunduta.

Eta beste barik, Egun Aundirarte, Agur ESTITXU maitea ta, bitartean, biotzeko besarkada bat bidaltzen dautzu, zuen etxeko ta batez be zeure adizkide izan dozun.

EGILEOR'TAR JON'EK



ABERRI EGUNA

Argazki onek agertzen deusku Gudari ezezagun izenbakoaren ildegian Euzko Jaurlaritza eskeintzea egiten 1945'garren urtean.

1936 ta 1946 bitartean egin, eratu, tankeratu izan zan gure Jaurlaritza. Bai ba, uste izan geinke zenbat eta zelango eragozpen gogorrak igaro bearko ebazan. Erri-Alkartuak gudara ia sarturik, gure Jose Antonio Lendakariak eskua sartu eban gogo beroz, bizkor ta poz-atsegiñez uri Mexiko'n izenpetuz 1943'ko Gabonilla'ren 14'n, Ajuriagerra, Rezola ta Enrike Dueñas zuzendaria izanez Agirre Lendakari Berarekin.



Lenengo oinkada aurrerantz aundiena Baiona'ko Aitormena izango zan, gudaosteko gerta-kizun garrantzientariko bat. Edesti, kondairaz Baiona'ko Alkargo-Ituna ezagutua, eta onartu ta izenpetua Euskalerriko indar demokrati guztiek 1945 urtearen 17 eta 31 Epailla'n.

Errien Europako euskaldun batzuen buruan gizaldi XX asikeratik sortua izan zan, ba Jaurlaritzaren jaiotzagaz erri arteko artu-emonak beste erriekin aren politikaren ardatz bat egiteben. Anai-gudea, erbesteratze ta geroago, Guda, Ludiko-Orokorra lan-diplomatiku sendoa egin ta indartu eban, eta berak be Euskotar onuraren erabagia billatzen ebala. 1947 urte inguruz, lenengo Europa bideelkartze ta aurkientza asi zanean, Jaurlaritzaren ordezkarien artukizun zerikusia agertzen zan.

Euskal-Eskualde, Probintziek, ta orain dagon lez Naparra Beragaz, Suiza'ko Alderdi-Kantoi langoak izan bear leukie, euron artean azke, euron buru, onela egiten Aberri zoriontsu bat.

Ezta naikoa Probintzi bakoitxak bere Aldundegia eukitea. Danok da-kigu Araba beti dagola marmar Bizkai ta Gipuzkoaren aurka onein ilgai dala esaten. Eta oneik biok be matraketan, onek ari ezteutsola itxiten egitea, berak uste dauan berarentzat egokia: "Jaurlaritza zapaltzaille bat da", diño. Orregaitik Probintzi norbera bere Jaurlaritza, orain Aldundegiak baiño almen geiago daukona. Suiza'ko Kantoia lez, azke ta batua era batera. Eta orain egin, eratu, lortu bear dogu bake bidez. Inoiz, ezelan bez, su-izkilluz, ikara bidez, kristiañeuen eraz, iñori iñoiz kalte egin barik.

LETONA'K

ARGIA AMATATEN DANEAN

"Conriliium Vaticanum" antolatzen diarduan abade eta praille moltso eder bat. Euren artean egozan. salmoak abestea ain maite daben, beneditarrlk. Salmoetan topaten dabe euren bizitzarako argia eta Jainkoarekiko indarra.

Bededitarrekin batera dominikarrak ere bai. Auek, Tomas Akinoko Deunaren jarraitzalleak diranez. arrazoia dabe elhuru eta jomuga nagusia: burua erabiltzen dozak onek. mutillak.

Euren artean ba egozan Loiolako lñigoren semeak ere. lñigok koruko salmo-kantak kendu eutsezan bere semei, cguneroko lanetan askatasun geiago izan dezaten lagunurkoaren alde lana egiteko: ikastolak jaso mailla guztietakoak. gaixotegiak eraiki eta abar.

Billera artan, bat-batean, argia amatau zan eta gelditu dira danok illunetan. Beneditarrak berealako batean asi ziran kantari: "Jauna dut argi..." Argia gora eta argia bera... Dominikarrek, berriz. kandela bat hiztu eta asi ziran argiaren goraltzak egiten eta errotik bere sortzea aztertzen: nundik norakoa dan, zer indar-mota dituen... Eztabaidan ekin eben. lñiQoren seme batek. bien bitartean. txiskeroa biztu eta "plomo"aren billa asi zan erretako alanbratxoa kanbiatzeko. Bcrrri batekin aldatu ebanean. orra berriro argiak billera ura argitu.

Kantuan berriro beneditarrak. Jainkoari argiagaitik eskerrak emanaz... Arrazoibidetik dominikarrek argiaren ederra aztertuz... Loiolatarrak. bien bitartean eta badan ezbadan be, "plomoa"ren ondoan beste alanbretxo bat ipiñi eban urrungorako.

Otoitz-bitartean, mailluakin emon.

Edo, beneditarrek euron beuren biziaren zuzenbiderako daukaten ikur au: **ORA ET LABORA** . Biak batera.

Baiña. Oto maltzurak, beneditarrekin praille-mutil egoala. onela euskaratu eban bere kolkorako: **JAN DA LO**.

GATU GORRI

Baserri zaar-eder batean. Qizaldietan zear, Xagu-erri osoa hizi zan. aukera onean askatasun eta pakearen naian.

Atea indarkeriz botata Gatu Gorri sartu zan eta izugarrizko triskantza egiñ ondoren. etxearen jaun da jabe gelditu zan.

Bizirik gelditutakoak, edo etxetik iges, edo etxeko zuoetan gorde ziran dar-dar. Zenbaitzuk. ordea. Gatu Gorri'ren serbitzuan jarri ziran eta lotzaz gorri-gorri zebiltzen.

Pakea sendotuta, Gatu Gorri'k jan da lo lasai egiten zuan. Lanean. etxeko xaguak jarri zitun eta jana ere aora serbitzen zioten.

Xagu asko izkutuan bizi eta izkutuan ugaritu ziran, illunpean; Gatu oso lodi bait zegon koipetsu eta gizen. Gatu Qizenago eta xaguak askatasun geiago. Ezin iñundik atzeman zituan, iges egiten bait zioten anka-artetik ere.

Gatu Gorri'k, aiekin bwrutu ezin eta bere serbitzari katu-kumeekin alkartuta, deabrukeri bat asmatu zuan: gatu izanik. xaguen itxurak artu. eta xagu-zuloetan sartu xaguak balira bezela...

Izkutuen arteko xaguetan burrukak sortu zituzten: alkarren arteko burruka zitalak. Gatu bitartean lo, muturreko bibotcak miazten...

Gatu Gorri'ren kumeak, nabarmen kolorea artuta. kata-kumeekin naastuta, sortu zituzten Xaguerriko burrukak zirala bide, erdibi zituzten batean zeuden gauza guztiak... Gero asi ziran batasunaren billa eta bitartean askatasuna aaztu zitzaian: kolorearen butasuna ohea bait zan, guztien askatasuna baiño; burgeskeri utsa bait zan bere etxearen jabetasuna nai iatea...

— Gure alkarren arteko auziak. geuk konponduko ditugu.— Zioten xagu sentzudunak. Lenengo Gatu Gorri bear degu etxetik bota...

— Ez jauna: zuek burgesak zerazte. Leenengo katakumeekin bat egin bear degu eta batasun osoa lortu...

— Baiña, ez al dezute ikusten Gatu Gorri'k ere orixe nai duala...? Orain ere alditunak arrapatzen ditu; zuenik ez, ordea, bat ere... Zergaitik ote? Eta nola izango gera bat Gatu eta xaQuak etxe batean...? Katukumeak xagu egitan biurtu. edo bestela beti xaguak Gatu Gorri'ren mende...

— Bai, baiña, gure artean Gatu Gorri'ren plateretik jaten ari diran xagu gizenak dira gure lenengoko arerioak...

—Mutilla iXaguen etsaia gatu dek beti...!

Ekin zioten alkarri koska, ainka, arrika xaguak, katu-kumeak naastean zirala...

Gatu Gorri'k begi bat iriki du, irriparre maltzurra ezpañetatik dario eta lo-zorrora berriro. Zertarako kcskatu? Eurak alkar jango bait dute...

EUSKAL LITERATURA

XVII'garren Gizaldia

1.º **Loratze ederra.** Aurreko gizalditik, politikaz ta erlijioz ain zuzen ere, naikoa naspildua zebillen Europa osoa, Ipar-Euskalerrriak ere naste orren ondorenak gorri-xamar ikusirik. Iraultza urteak ziran erriarentzat eta erlijioarentzat.

Baiña ekaitz ostein eguzki dizditsua jaiki oi da sarritan. Eta oraingoan ere bai, kulturari dagokionez beintzat. Mugaz andik emendik baiño ezialdi ederragoa etorri zitzaugun gudu ta borroka latzen ondoren, eta Prantziko euskal erruak literaturan iñoiz ezagutu duen loratzerikjoriena euki zuen.

Lapurdi ta Zuberoa kultur-itxasoa poliki ebakitzen asi zitzaizkigun literatura bideak zear oldartuaz. Lapurdi'n batez ere, arnasa ta antze aundiko idazleak jaiki ziran, barnean zuten egon-eziña, sua ta gora-naia agertuaz. Axular eta Axula en inguruko taldea ditugu asnasa aundiko euskal idazle auek.

2.º **Axular giroa.** Iparraldeko literaturak betetzen du amazazpigarren euskal arlo guztia, literaturan beintzat. Orixe'k onela: "Axula en biribilkia edo zikloa, bere zilbor edo buru delarik ipini diteke aurrena, uka-mukarik gabe".

Sara'ko eskola ere deitzen diote euskal literaturak artu zuen bultzadana oni. Izan ere, Axular etzan izan bakarrik garai artako aurrerapena sortu zuena. Talde bat zan, elkar sustatuta, aren inguruan lan egin zuena: Materre, Ziburu'ko Etxeberri, Haranburu, Argaiñarantz, Guilentena naparra, Hirigoiti osagillea, eta abar. Denak ez dute idazkera berdiña, denak ez dituzte liburuak ere argitara eman; baiña denok ditugu lapurtar literatura goi-goira jasoa zutenak.

3.º **Zuberotarrak.** Zuberoa'n, bazter zoragarri ontan ere, idazle bi jaiki ziran azkar eta bulartsu: Oihenart, istorigile, olerkari eta esaera zahar biltzauile bizkorra, eta Joanes Tartas, liburu ederren jabe. Idazle auek, Lapurdi'koak bezain garaiak ezpadira ere, ederki erabilli zuten gure euskera ango izkelgi goxoan. Ango izarño bi ditugu Bertrand Zal-giz eta Jakue Bela ere.

4.º **Axular.** Napparroako Urdazubi'n jaio zan 1556'an. Or-emen, Salamanka'n antza danez. eliz-ikaskizunak osatu ondoren, Tarbes'en apaiztu zan. Sara'ko erretora izendatu zuten, eta ementxe egin zuen animazai bere bizitza guztia.

Jakituri aundikoa gizasemea genuen, asko irakurria, garai artan Europa osoan humanistak piztu zuten eskolakoa. Liburu bat idatzi zuen: Gero, 16453'an Bordele'n argitaratua; egitekoak gerorako uzteak dakartzin kalteak, liburuaren mami. "Euskal Idazleen Printzea" deitu diot.

Egiaz, bere utsak ditun arren, azal ta mami ederki egiñiko lana dugu: bizi ta jatorra, pentsamentu giarrez eta aipu aberatsez jantzia. A1-dian batez, umore ona ta multzurkerizko irria creiten ditu, lanaren astuntasuna arin goxo biurtzearren. Iztegitz joria, naiz-ta latiñetik itz askotxo erabilli.

5.º **Axular'en oatea.** Eskola batek argia sortu oi du ingurumari. Orrelaxe Sara'koak ere, argia ta giroa sortu zituen. Eta amazazpigarren mende barru guztian, eta urrengoan ere berdin, uraxe izan zuten eredu ta ikasbide mugaz bestaldeko euskal idazle guztiak, edo geienak.

Ordukoak dira Harizmendi, Bernardo Gazteluzar, Silvain Pouvreau, Biarres Etxeberri, Aranbillaga, Belapeire, Aita Domingo Bidegarai ta abar.

6.º **Mugaz emendik.** Mugaz emendik, ordea, urritasun ikaragarria nabari da gizaldi ontan. Zergatik? Jakin ez. Ainbat bultz-gai ditugu gizonok esnatzeko, baita lo-erazteko ere. Euskal gaietaz naiko idazten da, baiña erderaz: Aita Moret'ek, adibidez, Napparroa jasotzen du, ta Lope de Isasti'k Gipuzkoa; Aita Gabriel Henao'k Bizkaia jasotzen du. Beste batzuk, Baltasar Etxabe zumaiatarrak bezela, euskera goratzen dute. Baiña erderaz.

Kapanaga, Mikoleta, Beriain, Aleson eta antzekoak ari dira euskeraz. Gizaldi berako, oso gutxi.

I.- AXULAR'EN AURREA

Aurreko gizaldiko euskal idazleak, Etxepare'k eta Leizarraga'k, emaniko eragiñak-edo sortu ta zabalduko euskal zaletasunak indar gotorra artu zuen amazazpigarren gizaldiaren lenengoetan. Erlijio borroka ere izango zan beste errazoi bat; Euskalerrrian ondo sustraiturik zegoen katolikotasunak ez zuen amore-eman naiko ziurrik asko. Dana dala, mugaz andik or ditugu ainbat idazle trebe.

Materre.– Bijoa lenengo aita Materre, Ziburu'ko komentuan bizi zan frantziskotar eliz-izlari trebea. Euskeldun berria zan, baiña bikainki ikasi zuen angoen izkera, ta lapurdiera darabil ark bai itzaldietan eta bai utzi zigun liburuan.

Liburu bat idatzi ta argitaratu zigun: **Dotrina kristiana** 1617'an Bordele'n argitara emana. Iru zati dauzka: lenengo deboziozko otoi-tzak, eta gero dotriña bi zatitan. Ziburu'ko mariñelai zuzendu zien lana.

Joanes Etxeberri.– Ziburutar egiten digu bere burua, eta ementxe jaio zan antza, Kantauri itxas-ertzeke Ziburu arrantzale erri txiroan. Gizaseme argia, Doctor teologus jartzen du bere idatzietan. Bertako erre-tore izan zan 1638'arte.

Euskal lanetan bere garaiko idazlerik trebe ta ugariena bezela jo dezakegu. Iru liburu beintzat argitaratu zituen: 1) **Manuel Debozinezkoa**, Bordel n bi aldiz argitara emana; 2) **Noelak**, eta 3) **Elizara erabiltzeko liburu**; sarri argitalduak auek ere. Bertsotan egiñak dira iru libm-uok. Ziburu'ko arrantzaleak kanta-kantari ibilli oi ziran beren itxas-lan arteetako asti-uneetan. Euskeraz zer abestu euki zezaten egiñak dira geienbat.

Iru iiburoatatik **Noelak** deritzana da ederrena, oraintsu ere argitara emana. Lau zati dauzka: 1) Kristoren sortze-aurreko gauzak, agintzak, profeten esanak, sibillen iragarkizunak, abenduokak, Gabriel aingeruaren agurra, Eguberri ta abar, guztiz 19 noel; 2) Jesukristoren bizitzako ezkutapen berezienak, amari kantuz guztiz, 3) Kristoren sortze beraren gainean; 4) Jainkoaren eta santuen ohorezko kantak. Loiolaa'ko lñaki deunaren eskerrak emanez bukatzen du liburu.

Oeta ona da. Noelik geienak zortziko txikitan -8/7- osotu zituen. Geroztik ere atsegin zaigu orrela idaztea, naiz zortziko txikitan, 8/7, naiz zortziko nausitan, 10/8. Neurkera auek erabilli zituzten, egia esan, amasei ta amazazpigarren mendeko olerkaririk geienak: Etxepare, Etxeberri, Harizmendi, Argaiñarantz'ek; Oihenart k eta Gazteluza ek ba-dituzte beste neurkera batzuk ere. Geure poetikako zera omen dugu, ta Orixe'k ain zuzen ere neurkera ortan osatu zuen bere **Getsemani** poema, ots, 8/7 edo amabostekotan, zortzi silabakoan ostein ixil-une egiñak.

Aita Joanes Haranburu'k era ba-du liburu bat, **Debozino eskuarra**. Euskaldun kaputxinoa zan, eta predikari ona, eta Andre Mariaganako jaiera mariñelen artean zabaltzen errime saiatu zana.

Argaiñaratz ere berdin, "Liburu'ko predikari genuen. Eta bi liburu utzi zizkigun euskeraz, **Abisu pobretxosak** eta **Devoten Breviarioa**, azken a batez ere bertsoz egiña.

Iruña'ko Olerki-sariketa. Gertakun au aipagarri dugu. 1609'an. Iruña'ko gotzaizan Venegas de Figueroa'k, Aldareko Gorputz sainduaren jaiak zirala-ta, olerki-sariketa bat antolatu zuen. Euskerazko gaietan iru auek, Pedro Ezkurra, Migel Aldatz eta Joan Elizald k jaso zituzten beren sariak.

II.- PIARRES AXULAR

Idazle ta izlari zan Axular, bietan trebe. Leen naiz orain guztiz aipatua: atsegiña zuen mintzoa, eta egiñak ez gutxiago; gizona, ain zuen, egiñetatik dugu ezagun. Ezbaitasun izpirik gabe, Axular'ek beti izan du, baita izango ere, toki guztiz berezia gure literaturau.

H' REN AUZIA

H'ren defentsatzaille agurgarri bateri

H'a ez dala ikurrin idatzi dezu eta Euskalerri osoan zure idatzia zabaldu. Ori da nunbait zure ustea eta zure gogoia ere bai.

H'ren alde bioloji-arrazoia aitatu izan dute maiz zenbaitzuk. Ez da arrazoi-bide txarra.

Zeorrek ere H'a artzeko arrazoibideren bat izango zenduan, noski. Erreztasunari laguntze arren, ez zan izango... Beste aldekoeri laguntzeagaitik...? Neretzako indar aundirik ez du arrazoi onek, alaz ere beste aldekoan onraz, erabili izan oi det neuk ere neure liburuetan (Juantxo-Txiki, Oto ta Pototo, Euskalerri zaarra eta "Semenoa de Lazkano") H zorioneko ori, baiña, batera uste sendorik gabe.

H'ren alde eta kontrako eztabaida cntzut dut, eta arrazoi-baierik bat bakarria entzun ere bear bezelakoa eta auxe da:

H'a ikurrin dala.

Alde batek jaso du, ikurrin berria, eta beste aldeak leengo ikurriñari. H'gabe ura, eldu dio. Bi aukerak onartzen nituen, edo beintzat, biezako errespetoa eta begirunea nuen.

Zu etorri zera, ordea, nere "eskema-mental-nibeladorea" ausitzera eta apurtzera. Euskaltzaindia'ren buru izateak ematen dizun indar guzietan esaten diguzu H'a ez dala ikurrin. Zure itz orreri Eskolastikan esaten genduen erantzungo dizut: transcat, pasa dedilla. Ez noa ori zalantzan jartzera; baiña, esaidazu, liburu bateri Harrizko Hei7i Hau edo orren antzeko titulua jartzen zaionean. H'a ikurrin bezela ez bada, ez al da gutxienez "traga-la' bat..1

Dana dala eta dena den, nik zure esana onartzen dut: H'a ez dala ikurrin, alegia. Eta orretzekin nere buruko pentsakera-ekilibrioia puskatzen didazu eta, bat-batean, argi egiñ...

H'ak ez du berez indarrik, esaten ez dalako gure artean, Ziburuko baztarto batean ez bada. Andik kanpora (eta andik kanpora bizi gera euskaldunok) H'ak ez du ezertako balio, estorbuak jartzeko besterik...

Berez ezer ez da eta indarra kanpotik artu bear ezer izateko: ikurrin bezela, kanpotik zuen indarra, ez berez. Ezertako serbitzen ez du, ikurrin izateko besterik. Ikurrin bezela indar aundia du, ikm-rinzaleak indar aundia dutenean eta ikurrin bezela artzen duten artean.

Baiña, zuk esan diguzu, Lendakaritza orren indarrez, H'a ez dala ikurriñ, eta esate orrekin H'ari "puntilla" eman diozu.

Ez bait du oraiñ ezertako balio...!

Eta badakizu biolojiaren legeak zer dion: ezertako ez dan Qorputzaren zatia, berez, bere barru-barruko indarrez, galtzera dijoala, galbidean jarrita dagoela.

Biolojiaren arrazoia arrazoi inportantea da.

DEFASADOAK ETA BIBOTEAK

– Oiek dituk desfasados. Ez ditek Batuarik erabiltzen-da.

– Euskaraz ari diranei esateko itza al dek ori? Esan ezak ori euskeraz. Oiek desfasados eta i fasean sartzeko oraindik.

– Desfasados ser dan edozeinek esagutzen dik.

– Erdaldunek serdan edozeiñek esagutzen dik.

– Erdaldunek baietz esatera ninjoan; baiña, ez zekiat erdal-dunak eurak ere desfasados zer dan ulertzen ote duten...

– Ezetz? Des-fasados, fasetik pasiak. Orra gauza garbia.

– Eta, zer fase dek ori? Illargiak ere bere faseak eta bere aurpegiak ba dizkik: ilgora, ilbera, illargi berria, illargi bctea eta tarteko beste guztiak. Noiz zegok illargia bere des-fasean...?

– Nik ori ez zekiat; baiña, persona bat desfaeada noiz dagoen, ori bai bazekiat.

– Ori topikorcn bat izango dek.

– Zer topiko gero! Des-fasados, fasetik kanpora.

– Modatik kanpora, algia? Eta ire biboteak zer dituk fasados ala desfasados?

– Nifasean nago.

– Ilberan ala ilberan...? Illargi berrian ala illargi batean...? Orain ogeita amar urtetik gora, geure gurasoek izugarritzko illematasak zituzten sudurpean...

Bizarra kentzeko tresna berriak sortu ziranean, bibotedunak desfasados gelditu ituan, muturrak garbi. Eta orain ogeita amar urtetik gora bere fasetik pasiak al dituk orain faseadunak...?

– Zergaitik ez...?

– Ilberan zaudetela, alegia...? Zeuk bezela pentsatzen ez duan guztiak dek zuentzako desfasados. Faseak eta modak sortu orduko aldatzen dituk. Moda-apairetan ibiltzea dek norberentzat bistosoa norbere burua agertzeko eta illargiaren antzera gora ta beera ibiltzeko... Orretarako oiñarri gutxi bear da.

– Zuek, berriz, fasc billa atzeraka joan zerazte eta gizonak bere pentsakeran oiñarritan bear dik eta ez bakarrik modan ibiltzeko asmoa. Fundamentu apur bat, edo funtsa fasadoak diotenez, oiñarri bezela... Nere amonak, sudurpean biboteak ezezik, bazuan funtsa ere bere kolkoan eta, badakik zer esaten zuan...?

– Neri ire amonaren esanak ajolik ez didate sortzen.

– Ala ere esango diat zer zion: modak eta faseak, alegia, saku zaar bat dirala, goitik bezela azpitik ere zuloa duena: azpitik ateratako trapuak goitik sartu. Orra zer dan modan eta fasean egotea. Zuek orixe egin dezute: desfasatuta zeuden trapuak azpitik atera eta gaiñean ipiñi eta ori onartzen ez duen guztia desfasado bezela jo.

– Zuek ez dakizute gaurkotasunaren berririk. Arri biurtutako dinosaurios batzuek besterik ez zerate.

– Soñeko bat izan guztokoa eta illargiak in batera aldatzen ez ba' dezu, ori al da desfasados izatea? Emakume gazteak aldatzen dituzten beuroen soiñekoak goizetik gabera emeretz aldiz, sakela bete diru kostata, ordea.

– Zuekin izketan egitea alperrikako lana dek, eta banoa zuekin.

– Faseak laister alda oi dituk. Moda ez dek sekulan geldit egoten eta zuen faseak buelta ematen asia dek. Agur, agur eta bueltara arte.

ANES (1971)

NOIZ ARTE?

Goiz argi batean, Iziartik ikusten dana bai zoragarria.
 Gibeletik, Andutz mendia: jentillen itxasontzia dirudi.
 ankas gora...
 Aurrean, itxaso urdin zabala, mugarik gabe... zorion
 ames...
 Bitartean, Salbatore menditxoa... Gallur-gallurrean, ermita-
 txoa; magalean, Urtiagako koba-zuloa...

Koba zulo artan bizi izan ziran eiztariak...
 Gaurko euskaldun arrazako eiztariak.
 Bulartsuak.
 Biotz aundikoak.
 Zezen, bisonte, otso, artza, zaldi, basauntz, basw'de eta
 abar ziiian eiztari auen eizea.
 Ze lilluragarri orain ba leude...!
 Mendiak zugaitzez josiak. Basoan, intxaun'a ta urra, aritz
 eta arte, pago lerden ta gaztaiñ lodi... Zer ez?
 Urtiaoko koba ertzetik errekatxoa dariola, sakonetik itsa-
 SOfañO...
 "Saka"ko zezen gorrien antzeko ta kastako zezenak... Goe-
 netatik erilcartzen zituzten sakoneko errekarra ta Urtiagako ate
 estuetik igarotzean..., zupla, zulora!
 Zuloa bai zcuketen zuQaitz adarrez estalita, erorbiderako
 jarria.

Noizik beinka ere izango zituzten bai muskullu, bai lanper-
 na, bai lapa, bai txirla... amaiketakorako.
 Postreko, berriz, intxaur, urre, mazuzta, sagar, txermen, ga-
 ragorriak...
 Zenbat aldiz egote ote ziran, arkaitz gañetik, itsaso zabacle-
 ra begira...!
 —'Zer ote da ur zabal borobill orren atzean'?
 Zerk arrotzen ta asarratzen ote du orrela°
 Zergatik egun batean aiñ goxo ta ezti; urrungoan, berriz,
 ain goibel ta illun...?'"
 Koba ataritik zenbait gau zerura begira:
 —"Ortz garbi, izarrak kiñuka gizonari... Iltetargia gabaren
 nagusi... Zergatik illargi betca... ta illargia berria...?"
 Zergatik trumoi ta oñestariak...'? Bildurra sartzen zieten
 ezur munetan dragoi zauka aiek... Ala Yainkoaren asarrea ote
 zi ran'?

Guk gaur zapaltzen degun lm-raren gañean bizi ziran gure
 arbasoak. gure aurrekoak ere...
 Gu bustitzen gaituan itsaso onek bustitzen zituan aiek
 ere,...

Ondartza auetan usten zituzten bere oñen arrastoak...
 Gizon aick, euskaldun aiek ziran gure iturburu; gure bizia-
 ren sortze...
 Ona Salbatoreko arkaitzaren babesean, gure aurrekoen
 etxebizitza ta obi... Ona, bere barruan, gure aurrekoen ezur-
 rrak... Eurenak eta gureak antzekoak...

Euskera ere arkaitz zulo aietan sortutako mintzaira degu...
 Arrezkero ez gure ezurretan. ez gure izkeran ez da etenik
 izan...
 Etcn ori gaurko egunetan gerta leike.
 Gure erruz.
 Gure arduragabekeriz.
 Ez al da orrelakorik gertatuko gure artean.

ASTOTXOAREN OTOITZA

Arrantzaka nago, Jauna.
 Ta egoki zait arrantza egitea. Ortarako ez det zmre aurrean
 lotsarik barne-muiñetatik ezagutzen bai nauzu, nere belarri lu-
 zeak zure eskuetatik sortu ziran egun artatik bertatik...
 Belarri-motza da zaldia nerekin konparatzcko.
 Ez dut zaldi izan nai.
 Asto egin nauzu ta asto nai det.
 Serbitzurako beti prest. Eskatzeko zuur. Uskeri batekin
 konforme. Nere probetasunean apal. Olz eta berotan erne. Gi-
 zonaren zenbait arrazoigabekerikin buru-gogorra nauzu. Asta-
 kerietan ez diot irabazten utziko.
 Leertu arte lan egiten det gizonaren serbitzuan eta ez dit
 iñoiz esker onik agertzen. Makila saietzctan jartzen dit maize-
 gi. Lasto apur bat eta kito. Ez naiz orregaitik asarr. Besteen
 ikullu bastartxo batean sartzen naute: neretzako ez da ikullu
 bereizirik or aldameneko karrera-zaldi oientzako bezela. Ez
 ditut sekula lanean ikusi. Biguñ bizi dira. Lanik ez; ondo jan;
 gizonaren eskuak laztan bizkarretik beera...
 Ez dut zaldi izan nai.
 Asto nai dut.
 Ez dut nere jaun gizontxo onen antzeko ere izan nai. Bere
 burua aingerutzat jotzen du. Iñorena, berriz, deabruzat.
 Bera da oro zuri. Elur garbia bezin zuri.
 Besteak dira dena beltz.
 Ikatz zikiña bezin beltz.
 Ez da, gizarajoa, nere antzeko danik konhurutzen: ez zuri ta
 ez beltz.
 Ni bezela, bai: gris kolorekoa, nabarra.
 Nabar tristea.

ANES (1969)

KARMELE

AZALPENAK

polita, urdiña, gorria, morea, erreza, barria, alai, txikia,
urdiña, zuria, ospetsua, mea.

Burua, gizona, alkondara, neska, dirua, sugea, telebista,
emea, kea, etxea, tellatua, itxasoa.




Zer da? 12 hz.

Zelakoa da? 12 hz.

ITZ-SALDA

7 EZBERDINTASUNAK AURKITU BEAR DOZUZ.



EUSKALDUN BARRIENTZAT

EUSKERA

MARI MONTESSORI ETA PEDAGOJI BERRIAK

Eun urte dira Mari Montessori jaio zala.
Eun urte betetzean, "Armes International de l'education" antolatu du UNESCO'k, Montessoriri omenaldi.
Nun?
Erroman. 1970'an.
28 nazioko larogei errepresentante.
Danetara seireun bildu dira batzarrean...

Mari Montessori berez medikua zan, baina bokazioz eskola-maixu edo ikastol-andereño.

Erromako San Lorenzo ballaran egin zituan bere asiera-asierako lanak umeen artean... Bere gixara utzita zebiltzela estudiantuaz umeak, ume oien aziera ta ezierarako legeak arkitu zituan ta asma-kizun berriak asmatu: "Lois vistales et fondamentales qui gouvernent le developpement psychique et intel lectuel de Pendant...".

Puntu artatik asi zan Montessori lege oieri so egiten eta metodo ta xistema berriak asmatzen, "des methodes actives", alegia: egin-kizunaren bitarteko era berriak asmatu zituan umeak ezitzeko...

Geldirik ezin egon dan umeak, ibiliz erakutsia ta ezia izan hear...

Beren arteko aurtu-emanetan umeak, txikienak ere, persona bezela tratatzen zituan Mari Montessorik.

Umeak persona izan nai du.

Persona izatera eltzeko, bere lege bereziak ba ditu aurrak... "qui a ses loin de developpement propre...".

Mari Montessorik ala dio bere liburu batean: "Cet enbryon spirituel quest l'enfant se developpe suivant un plan. Un homme est cache, un enfant inconnu, un etre vivant sequestre, qui'l faut liberer. Cest le devoir le plus urgent de l'education; et clans ce sens, liberer, c'est connaitre; it s'agit done de decouvrir l'inconnu".

Ezkurra ez da aritza, baina aritz ori bere ezkurretik etorriko da geldiro ta ziur; umea ez da gizona, egunen batean gizon izatera elduko diran indar ta almenak baizik.

Gaurko umea, biarko gizona. Baina gaur, ume oraindik.

Indar eta almen oieri askatasuna prestatzea izanen da ezikera ta edukazioaren eginkizunik bearrezkoena... Askatasun ori prestatzeko umearen ezagupidea egin hear au'retik...

Guk umea ezagutzen ez, ordea.

Gu gizonok bezelakoa ez dalako, izaten ditugu umea ezagutzeko ainbeste eragozpen...

Elburu auetaraino eltzeko umearen ezikeran, etxe ta familiaren antzeko bearluteke izan ikastolak... Bere gixara, aske ta libro, inoren indarkeririk gabe, umea here etxean... Ikastolak bear litzazke norbere etxearen antzeko: maixuaren begipean, ez indarpean... Begirunez ta maitekor tratatuak...

Giro orretan, emeki-emeki baifia ziurki, aurraren indar guziak, bere gaitasun bereziekin, zabaltzen joango dira klabelina irikitzen dan bezela, kemen oien apurrik galdu gabe, nola gorputzeko ala anima ta espirituazkoak ere... gorputzaren giarrak aina espirituaren sentiminak ere...

Pixkanaka, apurka aurra, jolasean bezela lanean ere, here buaruaren jabe-gai izan dedin, umeari bere kasa ekiten ta ibiltzen utzi bear... gauzak eskuetan erabilliaz, lanean ekinaz, geldirik gabe... berak billatu ta arkitu bear bere kasa, maixuaren eskutik datorkionaren zai egon gabe alperkerian...

Egonean-egon ez baina ekinean-ekin bear du umearen ikasbide ta ezibide...

Orixe izan da izan ere, Mari Montessorik umien ezikerako arkitu zuan bide barria: "methode active" izenakin esagutu izan degun xistema berezia.

,

Lehenago, aurraren ezikerari buruz, ekinaldi guzia maixuen eskuetatik zetorren; gaur, berriz, ekinaldia aurren eskuetara pasa da.

Umiak egin.

Maixuak, so.

Ezikera berri onekin ez da bat ere maixuaren eginbearra ta inportantzia meetzen, ez...

Ezta gutxiago ere.

Lehenago, umeak beartuta bezela artzen zuan maixuak ematen ziona; gaur, berriz, xistema auekin, aurrak berak aukeratzen ditu gauzak, here ariz ta bere indarrez berberak ikasten ditu berriak...

Maixuaren aurrean...

Maixua eredu dela...

Maixua ispillu dela...

Aurrak, eragozpenik gabe, gogo-txarrik gabe, bildurrik gabe, onartuko ditu maixuaren bizi-erakutsiak ta maixuaren laguntza.

**,*

Atsegin zaio gizakiari, gordeta dagoen zerbait arkitzea, illun-beetakoari argi egitea, iges dijoanari atzematea... Aurrari ere atsegin zaizkio orrelako lanbideak ta oietan ari dela, gorputz-animen indar guziak ezitzen ta azitzen zaizkio, ta, bide batez, biziaren atsegina ta maite izatearen ederra agertzen zaio begien aurrean... Ta "zer ikusi, ura ikasi".

Baina, maixua bear aurrean ejenplo ta eredu.

Aurrarenganako mesprezio igingarria litzake, ikasbide oien artean, Jainkoaganako biderik emango ez baginuke... Garbiak ditu begiak, areago biotza: "zorionekoak biotz-garbikoak, Jainkoa ikusiko bai dute...". Jainkoarekin errex asko alkartzen da ume-biotzgarbia... Eta guk, begilaudunok, alkarte ori ezin degulako, umeari uko...?

Ta jokabide zuzena da ori...?

Lausoa begietan, lizunkeria asmoetan, biu-rikeria biotzetan ta nola arranetan, espiritu utsa dan Jainkoa ikusi nai dugu...?

Ta guk ezin doguna, umeari galerazi...?

Ta, ori da zuhurjokatzea...?

Ta, ori da zuzen jokatzea...?

ARRINDA'TAR ANES (1970)

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*

RA~ BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa